

Errege Magoek
azken bisita
egin zuten atzo
Zizurkilen ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Igandea ▶ 2007-01-07 ▶ V. urtea ▶ 1.056. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

JOXE MARI GORROTXATEGI ▶ GOZOGILEA

«Dendako bezeroekin izan nuen harremanari esker asko ikasi dut»

TOLOSA ▶ Gozogile
tolosarra aitarekin hasi
zen lanean; bere
ibilbideaz jardun du

PROIEKTUAK ▶ Etiopiar
bidaia egitea eta argazki
erakusketa bat antolatzea
ditu orain buruan ▶ 6-7



Joxe Mari Gorrotxategi gozogilea. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



E. EZEIZA

Josu Mujikak irabazi du Xake Txapelketa

TOLOSA ▶ Aurreikuspenek Sabino Etxeberria
irabazletzat jo arren, azken txandan
erabaki zen azken edizioko garailea ▶ 4



jantzi
hitza.ren
jertseak

ZOS
soinu
ikastaroa
Informatika musikala
(Cubase)
Grabaketa eta masterizazio
profesionala.
P.A. eta monitorrak
Eta abar
943 65 35 35
www.sointek.net

ASTEKO IRUDIA ▶



MADDI SOROA

Meltxor, Gaspar eta Baltasarren bisita gurera

Erredakzioa ▶ Errege Magoak bi eskualdeetan izan dira aste honetan. Herenegun gauean heldu ziren, ilusioak opari bihurtzeko. Hala, eta ume askoren begiradapean, bi eskualdetako hainbat herritan izan ziren arratsalde partean. Urteko gau lanpetuena igaro ostean, berriro, bueltako bidaian abiatu ziren. Opariak jaso zituztenek, berriz, beste urte bete itxaron beharko dute haien hurrengo bisitarako. Orain egun hauek utzi dituzten «gehiegikerie» aurre egin beharko diete familiek, *urtarrileko malda* bezala ezagutzen dena ahalik eta hobekien igarotze aldera.

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

Abenduaren 31



Bereiztear zeuden 2006a eta 2007a. Iazko urtea bukatzeaz eta aurtengoa hastear. Gaueko hamabiak zortzi gutxi. Mahatsak mahai gainean prest askok. Gaurko protagonista honek, ordea, ez. Gidatzen zuen autoaren motorra soilik zeukan bero. Motorrak soilik eragozten zion erabateko isiltasuna. Errepidea hutsik eta burua gainezka. Gertuko bat haren gertukoagoko batengana eraman behar izan zuen ospitalera. Gertukoagoko haren aldamenean hasi nahi zuen urte berria, eta lagunak laguntzeko daudenez txoferrak bitan pentsatu gabe eraman zuen kopilotoa ospitalera.

Ez zuen sekula horrela hasi urterik. Errepidean bakarrik. Bera eta bolantea. Bolantea eta bera, eta isiltasuna konplize. Denak kanpai hotsen zain imajinatu zituen. Txanpain kopen

erritmora builaka eta elkarri muxuka. Joxean Artzeren Ortzia lorez, lurra izarrez liburuko partate bat etorri zitzaion burura. Nora goazen jakiteko nondik gatozen jakin behar omen da. Ez beti, ordea, pentsatu zuen. Hark bazekien nondik zetorren une hartan, baina ez nora zihoan. Ez zitzaion inporta nora zihoan. Hamabost minutuko tarte hura, isiltasunaren erresuma hura bere egin nahi zuen. Horrelakoetan bidaia da garrantzitsua, ez helmuga.

Ondoren Xabier Leteren ni naiz erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi dituen poeta tristea kantatuz harrapatu zuen bere burua. Ohiko bideetan bide berriak aurkitu nahi zituen. Urte berriaren aurrean atzean utzi nahi zituen oroitzapenek bidegurutzeari jarri zuten.


Azkenik, berriz ere familiarengana joan zen, eta ondoren lagunengana, eta parranda egin zuen, eta betikoa... nahigabe betikoa egiten bukatu zuen. Nahita ziurrenik. Urtea soilik aldatu zen. Beste guztiak bere horretan darrai. Niretik ari nintzen, niregatik, nigandik.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta.

Zeinek eramatan ditu opariak Eguberritan zure etxera?

- ▶ Olentzerok: % 26
- ▶ Hiru Errege Magoek: % 43
- ▶ Olentzerok eta Errege Magoek: % 17
- ▶ Ez dut oparirik jasotzen: % 13



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitzza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GUTUN@K ▶

Posible da!
sozialismo
iraultzailearekin
bakarrik!

Batera edo bestera begiratu eta leku guztietan daude gerrak, zapalketa nazionalak, kaxosa eta ezegonkortasuna. Kapitalaren botereak, multinazionalenak eta interes ekonomikoak dominatutako mundu bat daukagu. Gaur egun 500 enpresa handik kontrolatzen dute munduko ekonomia. Hau da hain zuzen 1847an Marxek eta Engelsek Alderdi Komunistaren Manifestuan eta ondoren Leninek 1916an idatzitako Imperialismoa, kapitalismoaren fase gorena liburuan aurreikusitako zutena.

Lehen begiratuan badirudi kapitalismoak modu erabakigarrian irabazi duela. Baina hori oso urruti dago errealitatek. Bizi dugun une historikoa ez du pessimismorako lekurik uzten. Latinoamerika astintzen ari duten gertakizun iraultzaileak eta batez ere langile klasearen borrokak boterea hartzeko Venezuelan, Bolivian eta Mexikon, inspirazio bat dira mundu guztiko langile eta herri zapalduentzat. Kapitalismoaren aurkako mundu mailako borroka da hau. Langile klasea indartsua da ideia erreformisten ilusiotik aska-

tzen bada. Erreformismoak beti promesten baitu negoziazioen bidez arazoak konpondu daitezkeela eta klaseko borroka ez dela beharrik.

Ez klase kapitalistak ezta bere sistemak ere ezin du Munduak dituen arazo bat bera ere konpondu. Euskal Herriak egiazko burujabetza nazionala eskuratzeko eta aurre egin behar dien beste arazo sozialak, ekonomikoak eta politikoak konpontzeko ezinbestekoa da sistema kapitalistarekin amaitzea. Euskal Herriaren autodeterminazioa eta lurralde batasuna eskubidearen aitortza oinarritzeko dira arazo nazionala konpontzeko. Euskal Herriaren eskubide demokratikoak ez dira lortuko negoziazio mahaietan, ordea. Langile klasea buru izango duen masa mobilizazioa sortzeko gaitasunean dago oinarria, sozialismoaren aldeko borroka argi eta garbi planteatuz.

Euskal Herrian, toki guztietan bezala burgesia eta langile klasea dauzkagu aurkako interesekin. Inperialismo espainiarrekin eta frantsesarekin estuki lotuta dagoen euskal burgesiak, bere historia guztian zehar Euskal Herriaren kausa traizionatu du. EAJ eta EAren nazionalismoa bere politzikoa hasten den tokian amaitzen da. Hortaz frontierik ez euskal burgesiarekin, independentziako klase politika baizik. Euskal Herriko langile klaseak eta

izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

gazteriak, muga nazionalen gainetik klaseko anai-arrebeekin elkartuta, sozialismo iraultzailea eta internazionalista batekin bakarrik, masen borrokan oinarrituz izango da posible alternatiba bideragarria eraikitzea, hemen eta munduan. Hau da nire konpromisoa. 2007ko urtea ona egin dezagula!

MANU ODRIOZOLA ▶ EUSKAL HERRIA
SOZIALISTA ALDIZKARIKO
KIDEA. (ANOETA)

Plataformak
alkateari

Alkate Jauna: Denok ondo asko badakigu pertsonen benetako maila ez dela ezagutzen jaialdi eta inaugurazioetan, egoera gatazkatsu eta arazotsuetan baizik.

Joan den abenduaren 27ko plenoa egoera horietako bat izan zen guretzat. Hain justu, mozio bat eztabaidatu zen: Euskal Herria plazako gerontologikoa itxetan Tolosaldean eragindako arazoari konponbidea emango liokeen gerontologiko berria sortzearena. Aurreko plenoan alkateak nolabaiteko konpromiso bat haru zuen mozio hori, ez dugu esango era monografikoan, baina bai luze eta zabal tratatzeko, zegokion plenoan. Izan ere, gauza asko zeuden argitzeak.

Eta gure ordezkarietan ple-noaren aurretik adostuta bi mozio aurkeztuko zirela eta aukera izango genuela eztabaidatzeko, osoko bilkura hasi zen. Bi mozioak aurkeztu ondoren, eztabaidari ekin zitzaion. Erantzunen bigarren txandan, gure bozeramaileak parte hartu behar zuenean, gainontzeko parte-hartzaileen (bi aldiz esku hartu zuten) arrazoiei erantzuteko asmoarekin, zuk esan zenion ezin zuela parte hartu, hau da, bukatu zitzaigula erantzuteko aukera eta mozioen funtzionamendua horrelakoxea zela (zuk ondo dakizunez, funtzionamendu hori zuk zeuk nahi duzunean aldatzen duzula, zure karguaren ahalmenez baliatuta).

Ikusten eta entzuten genua sinesgaitza iruditzen zitzaigun.

Haizu, baina ez al gara gorretan geratu. Haizu, ... Ez, funtzionamendu arauak hauek dira, erantzun zitzaigun. Eta zergatik ez duzu aldatzen orain funtzionamendu modu hau, zure eskuetan badago? Eta bozketara pasa zineten. Bozketa egiteko presa zegoen. Agian, kontsentsuatakoek atzera joko ote zuten beldur.

Iruditu zitzaigun bat-batean orain 10 urteko garai beltz hartara itzuli ginela.

Bi pertsonen arteko elkarrizketa batean, mundu zibilizatu honetan, eta ar gehiago edukazio pixka bat edukiz gero eta bere burua demokratizatzen jo-

gero, inork ez du bestea uzten erantzuna ahoan duela.

Eztabaida publikoetan horri Erantzuteko Eskubidea esaten zaio. Zuk zeuk exijitu eta lortu zenuena orain gutxi Euskadi Irratian, gure bozeramaileari erantzuteko.

Gainera, herriaren sektore handi baten bozeramaile bati (4.000 sinadura bildu dira) parte hartzen utzi nahi ez zion hori bera, hain justu, ari da, bestetik, herritarren partizipazioaren defendatzaile sutsu bezala agertzen (Agenda 21, Tolosa 2015). Pertsona berak tolosar askori, baita gure bozeramaileari ere, Eguberrietako postal bat bidali zae zorianak emateko, ohar pertsonalizatu baten bidez opatuz datorren urtean elkarrekin lan egiten jarraitzea Tolosa hobetzeko.

Pleno horretan, alkate jauna, gure kolektiboak eta bertara agertu zen jende askok beste pixka bat gehiago ezagutu zaitu, eta argi ikusi dute, horrenbeste irribarre, hitz polit, 750 urteurren, etaberran atzetik marketing kanpaina alderdikoi eta ondo antolatuta bat besterik ez dagoela, hurrengo udal hauteskundeei begira.

Aukera honetaz baliatuta, batetik gure ere Eguberri zoriontsuak opa dizkizugu eta, bestetik, hauxe esaten dizugu: ez izan zalantzarik, guk Tolosa hobetzeko lanean jarraituko dugu, batzuetan zurekin batera eta beste batzuetan, orain-goa bezala, zuri aurre eginez.

JABI ARANA ▶ PLATAFORMAREN
IZENEAN

DATUA ▶

13

Egun. Abenduaren 26an ireki zuten Laskorainek antolatutako Merkatu Txikia. Sahararen eta Ekuadorren aldeko erimenak gaur du azken eguna.

ESANA ▶



BALENTIN DORRNSORO

DISCOVERY CHANNEL TXIRRINDULARI TALDEKO MASAJISTA

«Elitean dauden txirrindulariekin lan egiten dugun masajistok denetik egin behar izaten dugu»

«Zazpi masajista gaude taldean baina ez gara baina ez gara elkarrekin egoten, gehienez ere lau izaten gara batera»

«Txirrindulari bakoitzarekin hiru ordu laurden ematen ditugu saio bakoitzean masajista bakoitzak»

HABE (2006ko abendua)

hitza lagunena
txokoa

HITZaren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZaren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin!
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

Ekialde Hurbilerako bidean dira

Errege Magoek opari ugari utzi dituzte Zizurkilen eta gainontzeko herrietan

ESTI EZEIZA

Errege Magoak Zizurkildik pasa eta bi eskualdeetako herri gehienetatik pasa ostean, atzo ekin zioten berriro Ekialde Hurbilerako bideari. Lehenengo eta behin, gainontzeko herriarrek batera Meza Nagusia entzun zuten San Millan Elizan. Hauekin batera elizkizunean izan ziren Jose eta Maria —Zizurkilgo bi gaztek bete zuten hauen lekua—. Ospakizunaren ondoren elizatik atera eta ondoko Zimiteiura bideratu ziren. hauek iristerako Zizurkilgo haur guztiak zain

zeuden. Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek, pajeen laguntzarekin, haurrei goxokiak banatu zizkieten. Gazetxoak, ilaran jarri, nola hala txandaren zain, eta banan bana igo ziren Errege Magoak zeuden lekura. Hemen, lotsa eta ilusioa nahasirik Erregeengana gerturatu, eta bi musu eman zizkieten. Bien bitartean guraso askok seme-alabean harridura aurpegia bertikotz nahi izan zuten argazki argazki kamerarekin. Goxoki banaketa amaitu ondoren, zaldirik eta gamelurik ez bazuten ere, beraien bidearekin jarraitu zuten. Baina lehenengo, Frai-



Banan bana igo ziren haurrak Errege Magoengana. E. EZEIZA



Jeiki eta lehenengo gauza opariak irekitzea egin zuten haurrek. HITZA

sorotik pasa ziren, han geldialditxo bat egiteko, eta bide luze-rako indarrak hartzeko.

Opariak irekitzeko garaia

Hiru erregeak Zizurkilera iristerako, eskualdeko gainontzeko haurrek irekita zituzten dagoeneko beraien opariak. Gau luzearen ondoren, inoiz baino lehenago jeiki ziren atzokoan haurrak, bezperan jarritako zapataren ondoan zer zuten ikusteko. Hala, azkar ibili ziren gaztetxoak opari berriak estreintzeko, eta goizean goizetik, panpin, pilota, gailu eta mota guztietako jostailuekin ikus zitezkeen atzo etxeko txikiak. Hala ere, biharkoa izango da ikaskideen aurrean harro egoteko eguna. Ikastetxera joan eta bakoitzari zer ekarri dioten erakusten baitute denek.

Dena den, Errege egunean, Olentzero egunean ez bezala, opari berriak izatearen poza, oporrak amaitu izanaren atsekabearekin batzen da. Beraz, beste urte bat igaro beharko du, berriro ere ilusio berdina bizi ahal izateko.

TOLOSA ▶ KIROLA

Josu Mujika izan da garaile XX. Errege eguneko Xake Txapelketan

Azken txandara arte ez zen erabaki nor izango irabazlea

E. EZEIZA

Josu Mujikak irabazi zuen atzo Jose Antonio Intxaustiren omeneko XX. Errege eguneko Xake Txapelketa. 12 jokalaria bildu ziren Aurrera Elkartearen.

Aurreikuspenek Xabino Etxeberria ematen bazuten ere irabazletzat, ozta-ozta, baina Josu Etxeberria izan zen garaile bederatzita puntu eta erdirenkin. Zortzi aldiz irabazi du dagoeneko Etxeberriak, baina

Mujikarentzat ere ez da irabazten duen lehen aldia.

Beste urteetan baino parte hartzaile gutxiago zirenez, ligaxka bakarra egin zuten atzokoan. Saio guztian zehar Xabier Mujika joan zen aurretik, baina azken partidaren gauzak aldatu ziren, eta hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Sailkapenari dagokionean, Mujika ibartarra geratu zen lehenengo, bigarren, Xabino Etxe-

berria, puntu erdi gutxiagorekin. Hirugarren, Xabi Mujika, hau ere bederatzita punturekin, eta laugarren Andres Bustamante, zazpi punturekin. Puntu banaketak adierazten duen bezala, lehia gogorra izan zen, eta azken partidara arte ez zen erabaki nor izango zen aurtengo irabazlea. Bestalde, berdinketa hauste bat baino gehiago jokatu ziren. Azken txandan, Xabino Etxeberriak Xabier Mujikaren aurka jokatu



12 lagunek hartu zuten parte aurtengo lehiaketan. E. EZEIZA

behar izan zuten, Etxeberria nagusitu zelarik. Aldi berean, Mujikak beste baten aurka jokatu zuen, eta honek irabazi zuenez, lehenengo postuan geratzea lortu zuen. Lehiaketaren ondoren,

irabazleen artean hainbat sari banatu zituzten, non sari berezi bat eman zioten antolatzaileek parte hartu zuen neska bakarrari, Anoetako Ohiana etxerikeri, hain zuzen ere.

TOLOSA
URBITARTE
SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 12tik aurrera zabaltzen dugu

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 18 01 19
20211 ATAUN

BERRIA egunkariak itzultzaile-zuzentzaileak behar ditu (erref.: euskara)

Baloratuko da:

- Testuak itzultzen edo zuzentzen esperientzia izatea.
- Ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea.
- Itzulpen masterra egina izatea.

Interesa izanez gero, bidali curriculuma urtarrilaren 15erako lanpostuak@berria.info helbidera, erreferentzia zehazturik.

iragarki laburrak ▶

LANA

Lorazaina. Tolosaldeko enpresa batek lorezainak behar ditu. Interesatuak deitu 615 78 45 76 telefono zenbakira.

Banatzaila. Baserriko produktuak banatzeko banazaila bat behar da. 943 68 22 14.

SALGAI

Loradenda. Loradenda eskualdatzen da Lasarten.

30 urte baino gehiagoko jarduerara, materiala eta guzti. Telefono zenbakia: 943 36 75 75 edo 626 50 56 89.

ALOKAIRUA

Pisua. Partikular batek pisu bat alokatuko luke Tolosan. Interesatuak utz dezatela mezua eta telefono zenbakia, 943 01 62 76 zenbakira. Absteni daitezela bitartekariak.



“Lehen filmetan bakarrik ikusten genituen horrelakoak.”

“Kamera zuen lehenengo mugikorra izan nuenean, txorakeria bat zela iruditu zitzaidan. Orain dudanak, ordea, MP3, kamera, bideo-deia, argazkiak...denetik du. Lehen filmetan bakarrik ikusten genituen horrelakoak, eta, orain, nik dut horrelako bat!

Niri horrelakoa gustatzen zait, pantaila handiarekin. Gero eta gehiago gustatzen zait, ezta?”

Aimar

Denontzat da telefonia mugikor berria.

JOXE MARI GORROTXATEGI ▶ GOZOGILEA

«Gauza asko ikasi nituen gozo dendako bezeroekin nuen harremanari esker»

Karlista sutsu baten eta abertzale baten semea; aitarekin hasi zen gozogintzan lanean, eta munduko txoko asko ezagutzeko aukera eman dio horrek; semeen esku utzi du aitarengandik jasotako negozioa

AINARA ARRATIBEL (Berria)

Gozogintza, argazkilaritza eta bidaiak. Horiexek dira Joxe Mari Gorrotxategi (Tolosa, 1929) gozogilearen hiru zaletasunak. Gazte baten ilusioarekin eta baikortasunarekin mintzo da hurrez. Aspaldi hartu zuen erretiroa, baina gauza berriak ikasteko eta ezagutzeko irrikaz dago: «Horixe da gazte mantentzen laguntzen naue-na». Etiopiara bidaiatzea eta argazki erakusketa bat antolatzea dira buruan dituen hurrengo bi proiektuak.

1929ko martxoaren 24an jaio zinen Tolosan. Nola duzu go-goan haurtzaroa?

Ondo. Lau anai-arreba ginen. Ni nintzen nagusia, baita mutil bakarra ere. Beraz, ondo zaintzen ninduten. Emakumez inguratuta pasatu nuen haurtzaroa [kar, kar, kar]. Matriarkatua oso ezarria zegoen etxean. Gogoan dut baita ere, eskolako maisuak oso zorrotzak zirela. Garbi uzten ziguten txiki-txikitatik eskolara ikastera gindoa-zela eta, ez, jolastera.

Lehen jaunartzea egin eta gutxira Espainiako gerra hasi zen. Nola bizi izan zenituen urte halebak?

Haur baten moduan. Gurasoak gertatzen ari zena ezkututzen saiatzen ziren. Ez zuten gu kezkatzerik nahi. Aita karlista sutsua zen, eta ama abertzalea. Baina etxean ez zen politikaz hitz egiten. Beraz, ez nintzen jabetzen zer gertatzen ari zen. Pentsa, gerra kontuak puri-purian zeuden bitartean, *a bueno* y *a malos* jolasten ginen eskolan. Inozente hutsak ginen.

Eta noiz hasi zinen konturatzeko benetako egoeraz?

Nerabezaroan, 14-15 urterekin. Aitona abertzalea zen, eta kartzelan sartu zuten. Abertzaleak hiltzaileak zirela esaten zuen Francoren propagandak, eta nik neure buruari esaten nion: ez da posible nire aitona, hainbeste maite nauen pertsona, hiltzailea izatea. Eskolako liburua Francoren aldekoak zirenez, nire kabuz liburua bilatzen hasi nintzen. Joxe Migel Barandiaranen *Anuario de eusko folclore* izan zen irakurri nuen euskal giroko lehen liburua. Horri eta Barandiaranen



JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

beste liburuei esker konturatu nintzen gure herriak nortasun propioa zuela. Gure usadioak maitatzearen eta mantentzearen garrantzia ere ikasi nuen.

Eskolara joateaz gain, gurasoek zuten gozo dendan ere aritzen zinen lanean asteburuetan.


Bai, halaxe da. Mutil bakarra nintzen, eta 10 urte nituenetik aitari laguntzera joaten nintzen. Larunbata azoka eguna izaten zen, eta inguruko herrietatik jende asko etortzen zen erosketak egitera. Horietako asko gurera etortzen ziren gosaltera. Erakusleihoaz zaintzen nuen nik. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta gauza asko ikasi nituen bezeroekin nuen harremanari esker. Eskola paregabea izan zen. Aitak nirekin egin bezala, nik ere seme-alabak maiz ekartzen nituen gozo dendara jendearengandik gauzak ikasteko.

Noiz hasi zinen zu opilak egiten?

14 urterekin edo. Orduan oso gutxi ziren unibertsitatera joaten zirenak. Beraz, Eskolapio-tan ikasketak bukatu eta aitarekin hasi nintzen lanean. Gose garaia zen, eta ez zegoen ez azukrerik, ezta irinik ere. Espainiako Gobernuak kakao eta azukre kopuru bat ematen zigun, eta harekin txokolataa egiten genuen. Txokolata hura Gobernadoreak agindutako udaletxeetara bidaltzen genuen, eta haiek herritarren artean banatzen zuten. Mazapana ere egiten genuen, irasagarrira eta almendrekin. 1950eko hamarkadan egoerak hobera egin zuten, eta pastelak egiten hasi ginen.

Aita izan zen, beraz, zure lehen irakaslea?

Bai. Dena den, hark nik gehiagoko ikastea nahi zuen. Hori dela eta, Donostiako Terron Garibai gozo dendako jabearekin hitz egin zuten, ni han lanean hasteko. Oso lagunak zirenez, baietz esan zion. Terron Garibai oso gozotegi ospetsua zen. Goi mailako pastelak egiten zituzten, oso finak. Ondoren, Iruñean izan nintzen. Han ikasi nuen turroiak egiten. Katalunian, Alemanian eta Frantzan ere egin nituen hainbat ikastaro. Beti gustatu izan zait gauza be-



JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

riak ikastea. Hori da gazte mantentzeko sekretuetako bat. Orain gutxi, adibidez, gozogintza teknika berriei buruzko ikastaro bat egin dut.

Asko aldatu al da gozogintza zu hasi zinetetik?

Bai, izugarri. Teknika asko garatu da, baita gozoen estetika ere. Gaur egun imaginazio handiko gauzak egiten dira. Nekez pentsa zitekeen ni hasi nintzeanean mandarinazko turroia egingo zenik, adibidez.

Besteak beste, turroiagatik da ezaguna zuen gozotegia. Gustuko al duzu zuk turroia?

Izugarri. Eguberriak iritsi aurretik jatea gustatzen zait, gainera. Izan ere, Gabonetan gehiegi jaten da turroiaz disfrutatu ahal izateko. Girlatxekoa, jijonakoa eta mazapanak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Berriak ere atsegin ditut, nire semeak egindakoak dira eta. Turroi berriren bat egiten dutenean ni izaten naiz probatzen aurrena. Oso kontuan hartzen dute oraindik ere nire iritzia.

Oso pozgarria izango da zuretzat egun seme-alabek zure

HASIERA

«14 urterekin-edo ekin nion opilak egiteari; Eskolapioetan ikasketak bukatu eta aitarekin hasi nintzen lanean»

lekukoa hartu dutela ikustea.

Orain bai, gustura daudela ikusten dudalako. Dena den, hasieran ez zitzaidan oso ondo iruditu. Izan ere, oso lan gogorra da. Ez dago ia jaiegunik. Nahiago nuen unibertsitatean ikasten jarraitu izan balute. Baina erretiroa hartzerantz nindola, egiten ari ziren ikasketak utzi, eta gozo dendarekin jarraitu nahi zutela esan zidaten. Lehenago jakin izan banu Suitzara eta Frantziara bidaliko nituen gozogintza ikastera, hantxe baitaude munduko gozogile onenak.

Nola ikusten duzu egiten ari diren lana?

Primeran. Maiz joaten naiz gozogintza lantegira haiek lanean ikustera. Oso txukun eta serio

ALDAKETAK

«Hasi nintzenetik teknika asko garatu da, baita gozoen estetika ere; gaur egun imaginazio handiko gauzak egiten dira»

ari direla uste dut. Asko sakrifikatzen dira. Hori bai, ez dut han denbora asko egiten. Beldur naiz belarririk heldu eta lanean jarriko ote nauten [kar, kar, kar].

Gozogintzan bezain ondo moldatzen al zarete, beste sukaldaritzan motetan?

Bai. Erabiltzen diren tresnak eta produktuak antzekoak dira; beraz, erraz ohitzen gara.

Tolosako babarrunaren kofradiako sortzaileetako bat izanda, horixe izango da zure plater gustukoena.

Egia esan, asko gustatzen zaizkit. Garai batean egunero jaten ziren, eta gozo dendan ere saltzen genituen. Horiek famatze-ko zerbat egin behar zela iruditu zitzaidan. Hori dela eta, kofradia sortzea proposatu nion

BABARRUNAK

«Kofradia sortzea proposatu nion Udaleri eta urteen poderioz bere bidea egin du: munduan zabaltzea»

Udalari. Ideia ona iruditu zitzaie, eta urteen poderioz bere bidea egin du. Oso garrantzitsua izan da Tolosako babarruna munduan zabaltzeko.

Gozogintza lantegitik eta sukaldaritza kanpo, zein beste zaletasun dituzu?

Argazkilaritza eta bidaiatzea. Aurtean argazki erakusketa bat jartzea proposatu dit Udalak. Asko bidaiatu dut, eta bidai horietan argazki ugari ateratu ditut. Pena da argazki asko galdu egin ditudala. Argazkilaria humanoa naizela esaten didate, pertsonen argazkiak ateratzean baititut, batez ere. Paisaiak ateratzea ez zait hainbeste gustatzen. Gainera, teknologia berriei esker, orain, izugarritzko argazki ederrak

ZALETASUNAK

«Argazkilaritza eta bidaiatze ditut gustuko; aurtean argazki erakusketa bat jartzea proposatu dit Udalak»

atera daitezke. Garai batean asko gustatzen zitzaizkidan baita ere zezenketak, baina ohitura hori galten joan naiz. Gero eta gogorragoa egiten zait animaliak sufritzen ikustea.

Zein izan da ezagutu duzun herrialderik ederrena?

Birmania, zalantzarik gabe. Hango jendea oso abegikorra da, eta garai bateko usadio eta ohitura gehienak mantentzen dituzte. Orain Afrikara joan nahi dut, zehazki, Etiopiarra.

Hain urrutira joan gabe, nola ikusten duzu Euskal Herria?

Itxaropentsu nago, eta iruditzen zait bake prozesua aurrera joango dela. Izan ere, denok nahi dugu bakea. Hori lortzeko, beharrezkoa izango da denon borondatea.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Laskorain ikastolak antolatuta, Merkatu Txikia Kultur Etxean. Gaur da azken eguna; Sahara eta Ekuadorrera bideratuko dute lortutako dirua.
Tolosa. TAKEN (Tolosako Arraun Kluba) erakustaldi eta aurkezpen estropadak: 11:00etan, Gipuzkoako ligaxkan ariko den talde bakoitzaren aurkezpena Zerkausian; 12:00etan, estropadak; eta 12:45ean sari banaketa.
Tolosa. Shanti torneooko finalak Usabalen, goizean.

ZINEMA

Tolosa. *Betizu eta Xangaduko misterioa* filma gaur ikusgai, 17:00etan Leidorren.
Tolosa. *Infiltrados* filma gaur ikusgai, Leidorren, 19:30ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika koadro lanak ikusgai daude, Alegiko jubilatuen tabernan, urtarrilaren 14ra arte.
Amezketeta. Gaur arte ikusgai eta salgai izango dira Maite Gurrutxaga margolariaren margolanak, Amezketako tabernan.
Tolosa. Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketara ikusgai da Aranburu Jauregian urtarrilaren 20ra arte.
Tolosa. Hondakinen Ingurugiro erakusketara ikusgai izango da hil honen 13a bitarte Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Ollarreaaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

Bihar
Leizta. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegana* (errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Agur Errege Magoei, musikaz

TOLOSA ▶ Musika alai eskaini zuten, beste behin, Udal Txistulari Bandak eta Musika Bandak, Errege egunean egin ohi duten kontzertuan



Udal Txistulari Bandak marinba-jole baten laguntza izan zuen. ESTI EZEIZA



Tolosako Musika Banda, Luis Mari Gartzia zuzendaritzapean. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Urtetoko Tolosako bi banden kontzertua eskaini zuten atzo. Udal Musika Eskolako aulki guztiak hartuta eta jendea zutik ere izan zen. Udal txistulari bandak ireki zuten Erregeetako kontzertua, hiru kanta eskainiz: *Egunsentian*, *Soka dantza* eta *Atzerriko Eguberria* jo zituzten.

Musika bandak, txistularien alaitasunarekin jarraituz, energiarekin hasi zuten jotzen, afinazioa txukun zainduz, eta kantu gehienak ezagunak izatearekin entzuleen arreta une oro mantenduz.

Txaloak tartean eta baita kanta batzuen bitartean ere izan ziren, ia obra guztiak aproposak baitziren: Johann Strauss-enak, alegia. Bai txistulari bandako zuzendaria den Iñaki Letamendia eta bai bandako Luis Mari Gartzia ere ederki izerditu zuten, musikari onena atera ahal izateko, eta tresna-jotzaileen erantzuna jaso ere, jaso zuten.

Lunch-a ere izan zen kanpoaldean. Errege Magoek eskualdetatik alde eginda jada, zurrerik nonbaitetik entzungo zizutela musika alai hauek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ugaitz Iturrioz (Tolosa).
 Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu haundi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Osaba Jose Mari (Alegia).
 Muxu handi 1, hainbeste maite zaituen familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Eukene Bravo Larrarte. 9 muxu handi amaren eta Josejabierren partetik. Ebeko sorginari.



URTE ASKOAN
Hermengildo. Zorionak ebekoen eta batez ere zure biloba Ametsen partetik.



URTE ASKOAN
Maddi Begiristain.
 Gaur 3 urte. Zorionak Pitusi ebekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...